

## GAURKO ARAZOAK

# GIZA-ESKUBIDEAK

### AGINTARITZA ERRITIK

Erriaren guraria da, agintari - almenaren oiñaari.

Erdi-Aroan ez euken olako eretxirik.

A gintaritzja jaungoikoagandik etorrela eta agintari-almena eukenak bakarrik egin leikezela legeak, uste eben. Eta beronek bakarrik eskubideak emon be.

Eleizeak «Bakea Lurrean» enzi.klikearen bidea, zabal-kiro onartzen dan gaurko erri-demokraziaren eritxia.

A gintaritzja jaungoikoagandik etorri arren, erriko gizon bakoitxak gobernua antolatzeke ta agintarien mugak erabagiteke eskubidea izan leikela diño.

### VIRGINIA'N ETA PRANTZIA'N

Gai onetan, lenengo agerpenak Amerika'tarrak dira.

Virginia' ko agerpenak, 1776'ko bagillaren 12'an, diño:

«Gizon guztiak, izatez, askeak eta buru jabeak «dira, eta gizaldien etorkizunak kendu ezin leikiezen berezko eskubideak daukez.

«Eskubide oneik dira: Askatasunerako ta bizitekoa ta zoriona ta ziurtasuna eskuratzekoa».

Baiña bere zabalkundea aundiagoa izan zalako, oiñatz sakonagoa itzi euskun idatzia, 1789'an Prantzia'ko Batzarrak onartu eban «Gizon eta Erritar-eskubiden Agerpena» da...

\* \* \*

### GIZARTERAKO BARDIÑAK

Gizonak, jaiotzatik, euren eskubideetarako askeak eta bardiñak dira. Eta gizarteak agiten dituan bereiz-kundeak, ezin dira izan guztien onerako bearrezkoak diranak baiño.

Politika-alkarte guztien elburua, gizonaren eskubide ezin-kenduai irauñ-ajotea da. Eskubide oneik, askatasuna, jabetasuna, ziurtasuna, ta zapaltzerik ez izatea dira.

1948'ko abenduaren 10'ean, O. N. U. k obeto argitu zituan bakoitxaren eta gi/arte aldetiko eskubideak: bizirako, lanerako, asiera ta eziera obarako...

### ESATETIK IZATERA

Benetan ederrak agerpen orreitako irakatsiak!

Baiña esana ta izana ez dira beti batera etorten!

Orregaitik, agindu orreik iñoz bete diran itanduten ba'dogu, ondo egiten dogu.

Eta zori txarrez, ez dirala bete erantzun bear! Pirri-parra ausiak eta zapalduak dirala autortu bear!

### EZ MORROIRIK, EZ OÑAZERIK !

Esaterako, eskubide orreñ artean, auxe agertzen da:

«Iñor ez da izango morroitzaren buztarribean».

Eta ba dakigu zenbat morroitzja izan diran ordutik ona! Gaur be ba dira, eta ez laterri atzeratuetan eta irugarren munduan bakarrik, erri aurreratuetan be bai, batez be guda-aldietan.

Beste au be esaten zan:

«Iñork ez dagiala artu miñik, oiñazerik, edo neke, biotz-zatarkeri ta gogorkeririk».

Eta ez dago esan bearrik be, zelako gogorkeriak egiten diran giza-kondairan eta gaur berton! Sarritan, gozonaren biotz gogorra noraiño eldu leiteken ikusias, ikaratuta geratzen gara!

LETONA'k